



Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea
Ebaluatu eta Egiaztatzeko Agentzia

Agencia de Evaluación de la Calidad y
Acreditación del Sistema Universitario Vasco

**Memoria, kontratatutako irakasleak eta
ikertzaileak, unibertsitate pribatuetan
doktore-titulua duten irakasleak
ebaluatzeko eta egiaztatzeko, eta irakasle
lankideak eta elkartuak kontratatu aurreko
txostena egiteko.**

2008ko deialdia

AURKIBIDEA

	Or.
1. Sarrera	3
2. Ebaluazio-prozesuaren deskribapena	4
3. Ebaluazio-prozesuaren irudikapena.....	18
4. Ebaluazio-prozesuaren egutegia	19
5. Ebaluazio-prozesuaren emaitzak	20
6. Hobetzeko proposamenak	36
7. I. eranskina.....	37
8. II. eranskina	44

1. SARRERA

Euskal Unibertsitate-sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Agentziaren (Uniqua) helburua da euskal unibertsitate-sistemaren kalitatea ebaluatu eta egiaztatzea, Europa eta nazioartea aintzat hartuta betiere. Euskal Unibertsitate-sistemaren otsailaren 24ko 3/2004 Legearen 80. artikuluan ezarritakoaren arabera, Uniqualen eginkizunak dira irakasleen (osoen, agregatuen eta atxikien) kontrataziorako merezimenduak ebaluatzea, irakasle lankidea eta elkartua kontratatu aurreko txostena prestatzea eta, azkenik, unibertsitate pribatuetan doktore-titulua duten irakasleen irakaskuntza eta ikerketa alorretako lanaren kanpoko ebaluazioa egitea.

Publikoak ez diren unibertsitateek UNIQUALEkin hitzarmenak formalizatu beharko dituzte horietan lan egiten duten irakasleen kanpoko ebaluazioa egiteko, horrela ezarri baita Euskal Unibertsitate-sistemaren otsailaren 25eko 3/2004 Legearen 113. artikuluan eta Unibertsitatei buruzko abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoaren 72.2. artikuluan (apirilaren 12ko 4/2007 Lege Organikoak aldatu du).

Agiri honen bidez labur azaldu nahi da zein den Uniqualek deialdi orokorra (2008ko irailaren 10ekoa) eta zehatza (2008ko irailaren 15ekoa) argitaratu zirenetik gaur arte egin duen ebaluazioa, eta zein diren ebaluazio-prozesu horren faseen xehetasunak; gero, amaieran, emaitzak azalduko dira.

2. EBALUAZIO-PROZESUAREN DESKRIBAPENA

2.1) Eskariak jasotzea.

2.1.1 Deialdi zehatza

Euskal Unibertsitate-sistemaren otsailaren 25eko 3/2004 Legearen (aurrerantzean EUSL) 2. xedapen iragankorreetan ezarri da bertan jasotako betekizunak betetzen dituzten EHUko irakasleek lankide iraunkorren edo agregatuaren izaera egiaztatu ahal izango dutela egiaztapen prozedura orokorrean parte hartu beharrik izan gabe.

UNIQUALEk lehenbizi egiaztatu behar du eskatzaileek EUSLren 2. xedapen iragankorrean ezarritako betekizunak betetzen dituzten, berdin da eskaera lankide iraunkor edo irakasle agregatu izateko egin den. Hona hemen aipatutako betekizunak:

1. 2004ko apirilaren 2an EHUn irakasle elkartu gisa kontratatuta egotea lanaldi osoan.
2. EHUn gutxienez bost urtez irakaskuntza edo ikerketa lanetan aritu izana egiaztatzea. 2004ko apirilaren 2an dagoeneko bost urte egon behar izan da unibertsitatean lanean. Ondorio horietarako, EHUra atxikitako zentro batean ikerketa-bekaren batekin egondako denbora ere zenba daiteke, baldin eta irakaskuntza edota ikerketa-lanak egin direla egiaztatzen den denboran zehar izan bada.

Irakasle agregatu gisa kontratatzeko txosten berezia eskatzen denean, UNIQUALEk egiaztatu beharko du interesduna **2004ko apirilaren 2an** doktorea

zela. Baina egun hori baino beranduago izan bada doktorea, egiaztapena lortu ahal izateko deialdi orokorretik hasitako prozesuan parte hartu beharko du.

Uztailaren 29ko 149/2008 Dekretuaren VIII eta IX. eranskinetan garatzen da aurreko lege xedapena (EHAA, 2008ko abuztuaren 11koa); eranskin horietan kontratu mota bakoitzerako (lankide iraunkorra eta irakasle agregatua, hurrenez hurren) hiru kasu ezarri dira eta UNIQUALEk bereiz hartu behar ditu bakoitzak txosten eta eduki ezberdinak izango baititu, kasuaren arabera:

1. ANECAren aldeko txostena aurkeztu duten EHUko irakasleak.
2. EHUko irakasle eta ikertzaileek ebaluazio positiboa izan zuten Gizarte Kontseiluaren 2007ko urtarrilaren 26ko osoko bilkuran hartutako erabakiaren bidez onartu zen deialdian hasitako ordainsarien osagarri gehigarrien prozesuan; 35 eta 40 puntu jaso zituzten, lankide iraunkorraren eta irakasle agregatuaren karguetarako, hurrenez hurren.
3. EUSLren 2. xedapen iragankorrean deskribatutako egoeran dauden EHUko irakasleak, arestian aipatutako txostenik ez dutenak. Horrenbestez, batzorde berezi eta diziiplina anitzeko batek ebaluatu beharko ditu irakasle horiek, eta historial akademikoan jasotzen diren merezimenduak baloratuko ditu egiaztapen orokorrari buruzko 149/2008 Dekretuan onartu diren irizpideak betez (VI eta II. eranskina).

UNIQUALEk betekizun horiek guztiak egiaztatuko ditu EHUk emandako informazioa aintzat hartuta; izan ere, betekizunenetako bat betetzen ez bada, espedientearen izapidetzea eten egingo da, eta Agentziak eskatzaileari gutun batean eskatuko dio okerra zuzentzeko. Gutunean zehatz azalduko da zein den

EHUK emandako datuen arabera bete ez den betekizuna eta interesdunari hamar eguneko epea emango zaio bidezkoak diren frogagiriak aurkezteko.

Eskatzaileak EUSLren 2. xedapen iragankorrean jasotako betekizunak betetzen dituzenean (EHUK emandako informazioa kontuan izanda edo interesdunak aurkeztu duen dokumentazioa aztertuta), UNIQUALEk egiaztatuko du uztailaren 29ko 149/2008 Dekretuaren VIII eta IX. eranskinetan jasotako lehenengo bi kasuetako batean sartzen den.

Kasu bakoitzean honako egiaztapenak egingo ditu:

1. ANECAREN aldeko txostenaren aurkezpena:

a) Lankide iraunkorraren kasuan (149/2008 Dekretuaren VIII. eranskina):

Eskatzaileak ANECAREN irakasle lankide figurarako aldeko txostena duela ziurtatzen duena aurkeztu behar du berariazko txostenaren eskabidearekin batera. Txosten hori aurkezten ez badu, baina berariazko txostenaren eskabidean aipatzen badu, UNIQUALEk Zuzenketarako Gutuna bidaliko dio arestian aipatu diren ondorioekin.

b) Irakasle agregatuaren kasuan (149/2008 Dekretuaren IX. eranskina):

Eskatzaileak ANECAREN irakasle kontratatu doktore figurarako aldeko txostena duela ziurtatzen duena aurkeztu behar du berariazko txostenaren eskabidearekin batera. Txosten hori aurkezten ez badu, baina berariazko txostenaren eskabidean aipatzen badu, UNIQUALEk Zuzenketarako Gutuna bidaliko dio arestian aipatu diren ondorioekin.

Eskatzaileak ANECaren aldeko bi txosten horietako bat aurkeztu ostean, Agentziako zuzendariak bi hilabetetan (eskabidea aurkeztu den egunetik zenbatzen hasita) ebazpena emango du, eta horren bidez lankide iraunkor edo irakasle agregatu gisa kontratatzeko txosten berezia emango da.

2. Ebaluazio positiboa, EHUren Gizarte Kontseiluaren 2007ko urtarrilaren 26ko osoko bilkuran hartutako erabakiaren bidez onartu zen deialdian hasitako ordainsarien osagarri gehigarrien prozesuan lortutakoa.

Berariazko txostena lortzeko beste modu bat Uniqualeko zuzendariaren ebazpena aurkeztea da, hau da, "B" edota "A" ordainsarien osagarriak ezartzeko ebaluazioa ebazten duena edo, bestela, osagarriak ezartzen dituen EHUren Gizarte Kontseiluaren erabakia.

a) Lankide iraunkorraren kasuan (149/2008 Dekretuaren VIII. eranskina):

Eskatzaileak, berariazko txostenaren eskabidearekin batera, UNIQUALEko zuzendariaren ebazpena aurkeztu behar du, eta ebazpen horretan gutxienez 35 puntu eman behar zaizkio ordainsarien osagarri gehigarrien prozesuan.

b) Irakasle agregatuaren kasuan (149/2008 Dekretuaren IX. eranskina):

Eskatzaileak, berariazko txostenaren eskabidearekin batera, UNIQUALEko zuzendariaren ebazpena aurkeztu behar du, eta ebazpen horretan gutxienez 40 puntu eman behar zaizkio ordainsarien osagarri gehigarrien prozesuan.

Eskatzaileak lortutako puntuak ez badira heltzen 149/2008 Dekretuaren VIII eta IX. eranskinetan ezarritako gutxieneko puntuaziora (35 eta 40 puntu, hurrenez hurren), UNIQUALEk jakinaraziko dio eskabideari uko egin ezean aurkako

berariazko txostena egingo dela eta, orduan, sei hilabete itxaron beharko dituela figura horretan egiaztatzeko berriz aurkeztu ahal izateko (azaroaren 13ko 192/2007 Dekretuaren 8.2 artikulua). Alabaina, interesdunak hasierako eskaerari uko egiten badio, ukapena guztiz onartzen duen ebazpena emango da.

Lankide edo kontratatutako doktoreek arestian aipatutako txostenik ez badute eta UNIQUALEko zuzendariak haien aldeko ebazpenik eman ez badu, edo EHUren Gizarte Kontseiluak osagarrien prozesuan lortutako puntuazioaren gainean erabakirik hartu ez badu, berariazko egiaztapen-prozesura aurkeztu beharko dira eta xede horretarako eratuko den batzorde berezi eta diziplina anitzeko batek ebaluazioa egingo die.

2.1.2 Deialdi orokorra

Deialdi orokorra 2008ko irailaren 10eko EHAAn argitaratu zen. Ondoren, eskabideak aurkezteko epealdian zehar, Uniqualeko langileek telefonoz nahiz mezu elektronikoz azaldu zaizkien zalantzak edo Agentziaren egoitzara joandako pertsonen zalantza guztiak argitu zituzten. Zalantza gehienak merezimenduak aurkezteko azken egunari eta horien betekizun formalei buruzkoak izan ziren.

Uniqualen jasotako eskabide bakoitzean hurrengoak egiaztatu ziren:

- 1 Eskatzaileek legez ezarritako betekizunak betetzen dituzten.
- 2 Aurkeztutako agiriekin deialdian ezarritako betekizun formalak betetzen dituzten.

Aldez aurretik ezarritako betekizunen bat bete ez zen kasuren batean interesdunari hamar eguneko epea eman zitzaion okerra zuzentzeko, horrela ezarri baita Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari

buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen (AJAPEL) 71. artikuluan. Okerra zuzendu ezean, eskaerari uko egin ziola ulertu zen. Halaber, prozesuaren ezaugarrien berri eman zitzairen irakasle guztiei, bizitza akademiko eta profesional osoaren merezimenduak eta frogagiriak aurkez zitzairen.

Eskabideak egiaztatu ahala, sailkatu eta Uniqualen egoitzan artxibatu ziren, aplikazio informatikoan eta berriaz sortutako datu-base batean.

2.2) Ebaluazio-batzordeak

Ebaluazioari ekin baino lehen, ebaluatzaileek Jokabide Kodea eta Interes-gatazken eta Isilpekotasunaren Adierazpena sinatu behar izan zuten prozesua objektiboa, isilpekkoa eta alderdikieriarik gabea izango zela bermatzeko (I eta II. eranskinak).

Batzorde berezi eta diziplina anitzekoa (1. taula) berriazko txostena emateko eratu zen. Batzorde hau 2008ko urriaren 6an izendatu zen, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian.

Gizarte-, lege- eta ekonomia-zientzien jakintza-arloan, hainbeste eskabide aurkeztu zenez, Ebaluazio-Batzordearen bost aholkulari izendatu ziren. Aholkulari horiek ondoko arloetan ziren adituak:

1. Psikologia
2. Hezkuntza
3. Ekonomia
4. Komunikazioa eta publizitatea
5. Kazetaritza

Deialdi orokorrean bost Ebaluazio-Batzorde eratu ziren (2 - 6 taulak), jakintza-arlo nagusiei lotuta. Batzordearen eraketa 2008ko abenduaren 23ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen, eta kideetako bat ere ez zen ezetsi.

Bestalde, aurkeztu ziren eskabide guztiak aztertu ostean (batez ere gizarte-, lege- eta ekonomia-zientzien batzordean), zuzenbide, soziologia eta ekonomia arloetan aholkularien laguntza behar izan zen eskaera guztiak behar bezala ebaluatu ahal izateko.

1. taula. Batzorde Berezi eta Diziplina Anitzekoaren eraketa.

BATZORDE BEREZIA			
Ebaluatzailea	Kategoria	Unibertsitatea	Jakintza-arloa
Juan Andrés Legarreta Fernández	Unibertsitateko katedraduna	EHU	Ingeniaritza Kimikoa
Aintzane Asumendi Mallea	Unibertsitateko irakasle titularra	EHU	Biologia Zelularra
Jose Luis de la Cuesta Arzamendi	Unibertsitateko katedraduna	EHU	Zigor Zuzenbidea
Fernando Plazaola Muguruza	Unibertsitateko katedraduna	EHU	Fisika Aplikatua
Joaquín Gorrochategui Churruca	Unibertsitateko katedraduna	EHU	Indoeuropar Hizkuntzalaritza

2. taula. Medikuntza eta Osasun Zientzien Batzordearen eraketa.

MEDIKUNTZA ETA OSASUN ZIENTZIEN BATZORDEA			
Ebaluatzailea	Kategoria	Unibertsitatea	Jakintza-arloa
Juan José Zarranz Imirizaldu	Unibertsitateko katedraduna	EHU	Neurologia
Amaia Irazusta Astiasaran	Unibertsitate Eskolako irakasle titularra	EHU	Erizaintza
Jon Irazusta Astiasaran	Unibertsitateko katedraduna	EHU	Fisiologia
Elena Barberia Leache	Unibertsitateko katedraduna	Madrilgo Unibertsitate Konplutensea	Estomatologia
Pilar Civeira Murillo	Nafarroako Unibertsitateko katedraduna	Nafarroako Unibertsitatea	Barne-medikuntza
M ^a Puy Portillo Baquedano	Unibertsitateko irakasle titularra	EHU	Elikadura eta Bromatologia
Iciar Astiasaran Anchia	Nafarroako Unibertsitateko katedraduna	Nafarroako Unibertsitatea	Elikadura eta Bromatologia

3. taula. Irakaskuntza Teknikoen Batzordearen eraketa.

IRAKASKUNTZA TEKNIKOEN BATZORDEA			
Ebaluatzailea	Kategoria	Unibertsitatea	Jakintza-arloa
Carlos Bastero de Eleizalde	Nafarroako Unibertsitateko katedraduna	Nafarroako Unibertsitatea	Matematika Aplikatua
Inmaculada Zamora Belver	Unibertsitateko katedraduna	EHU	Ingeniaritza Elektrikoa
Fernando Cortés Martínez	Irakasle osoa	Mondragon Unibertsitatea	Ingeniaritza Mekaniko Aplikatua
J. Ignacio F Galárraga Aldanondo	Unibertsitateko irakasle titularra	EHU	Hirigintza eta Lurralde Antolaketa
M ^a José Gil Larrea	Deustuko Unibertsitateko katedraduna	Deustuko Unibertsitatea	Lengoaia eta Informazio Sistemak
Juana M ^a Mayo Nuñez	Unibertsitateko katedraduna	Sevillako Unibertsitatea	Ingeniaritza Mekanikoa
Iñaki Mondragón Egaña	Unibertsitateko katedraduna	EHU	Ingeniaritza Kimikoa

4. taula. Giza Zientzien Batzordearen eraketa.

GIZA ZIENTZIEN BATZORDEA			
Ebaluatzailea	Kategoria	Unibertsitatea	Jakintza-arloa
Joaquín Gorrochategui Churruca	Unibertsitateko katedraduna	EHU	Indoeuropar Hizkuntzalaritza
Mikel Urquijo Goitia	Unibertsitateko katedraduna	EHU	Historia Garaikidea
Amelia Barquín López	Unibertsitate pribatuko irakasle-doktorea	Mondragon Unibertsitatea	Filologia Erromanikoa
Carlos Beorlegui Rodríguez	Deustuko Unibertsitateko katedraduna	Deustuko Unibertsitatea	Filosofia
Rose Miren Pagola Petrirena	Deustuko Unibertsitateko katedraduna	Deustuko Unibertsitatea	Euskal Filologia
Pilar Roig Picazo	Unibertsitateko katedraduna	Valentziako Unibertsitatea	Pintura
María Sierra Alonso	Unibertsitateko irakasle titularra	Sevillako Unibertsitatea	Historia Garaikidea

5. taula. Zientzia Esperimentalen Batzordearen eraketa.

ZIENTZIA ESPERIMENTALEN BATZORDEA			
Ebaluatzailea	Kategoria	Unibertsitatea	Jakintza-arloa
Fernando Plazaola Muguruza	Unibertsitateko katedraduna	EHU	Fisika Aplikatua
Rosa M ^a Alonso Rojas	Unibertsitateko katedraduna	EHU	Kimika Analitikoa
José María González Calbet	Unibertsitateko katedraduna	Unibertsitate Konplutensea	Kimika Ezorganikoa
Jordi Lalucat Jo	Unibertsitateko katedraduna	UIB	Mikrobiologia
Manuel Prieto Rubio	Unibertsitateko katedraduna	Oviedoko Unibertsitatea	Kristalografia eta Mineralogia
Gustavo Slafer	Ikerketa irakaslea	Lleidako Unibertsitatea (ICREA)	Landareen Biologia
Juan Bernardo Zaballa Tejada	Unibertsitateko katedraduna	EHU	Matematika Aplikatua

6. taula. Gizarte, Lege eta Ekonomia Zientzien Batzordearen eraketa.

GIZARTE, LEGE ETA EKONOMIA ZIENTZIEN BATZORDEA			
Ebaluatzailea	Kategoria	Unibertsitatea	Jakintza-arloa
Gurutz Jauregi Bereciartu	Unibertsitateko katedraduna	EHU	Konstituzio Zuzenbidea
Inmaculada Gallastegui Zulaica	Unibertsitateko katedraduna	EHU	Ekonomia Aplikatua
Nekane Arratibel Insausti	Unibertsitate pribatuko irakaslea	Mondragon Unibertsitatea	Psikologia
Gualberto Buela Casal	Unibertsitateko katedraduna	Granadako Unibertsitatea	Psikologia
Emiliano Fraile Arbiol	Deustuko Unibertsitateko katedraduna	Deustuko Unibertsitatea	Enpresa Zientziak
José Vicente Idoyaga Arrospide	Unibertsitateko katedraduna	EHU	Ikus-entzunezko Komunikazioa eta Publizitatea
Carlos Marcelo García	Unibertsitateko katedraduna	Sevillako Unibertsitatea	Didaktika eta Eskola- antolakuntza
Aholkulariak	Kategoria	Unibertsitatea	Jakintza-arloa
Iñaki Aguirreazkuenaga Zigorraga	Unibertsitateko katedraduna	EHU	Administrazio Zuzenbidea
Lander Beloki Mendizabal	Irakasle titularra	Mondragon Unibertsitatea	Ekonomi Analisiaren Oinarriak
Laura Gómez Urquijo	Irakasle titularra	Deustuko Unibertsitatea	Nazioarteko Harremanak
Arantza Rodríguez Berrio	Irakasle titularra	Deustuko Unibertsitatea	Gizarte Langintza eta Soziologia

2.3) Ebaluazioa

Eskabide bakoitza zegokion batzordeari esleitu zitzaion, jakintza-arloaren arabera. Baina lehenbizi interesdunen eskabideak aztertu ziren, gerta zitekeelako alegatutako merezimenduak eskatzaileak adierazitakoa ez zen beste arlo baterako egokiagoak izatea eta, orduan, eskabidea beste horretara bidali behar izatea.

Binaka ebaluatu ziren, baina banan-banan eta bereiz. Ebaluazio-fasean zehar, Uniqualeko langileek irakasle eta ikertzaileek adierazi eta justifikatutako merezimenduak argitzeko beharrezkoa zen informazioa bidali zieten ebaluatzaileei.

Eskabideen lehen ebaluazioa egin ostean, ebaluazio-batzorde bakoitzak 2009ko urtarrilean, otsailean eta martxoan bilera egiteko eguna eta ordua ezarri ziren (ikusi 7. taula). Bileraren ondorioz txosten bakarra eta adostua egin zen ebaluatu beharreko eskabide bakoitzerako.

7. taula. Ebaluazio-batzordeek egindako bilerak.

	ZE	MZ	GZ	IT	H
Bileren data	2009-01-22	2009-01-26	2009-01-27	2009-01-16	2009-01-21
	2009-03-05	2009-03-06	2009-02-25	2009-03-09	2009-03-05
			2009-03-11	2009-03-25	

ZE: Zientzia Esperimentalak; MZ: Medikuntza eta Osasun Zientziak; GZ: Gizarte, Lege eta Ekonomia Zientziak; IT: Irakaskuntza Teknikoak eta H: Giza Zientziak.

2.4) Ebazpena

Deialdi zehatzari dagokionez, ebazpenetan txosten berezia eskatzeko irudia aipatu zen, baita txostena aldekoa edo aurkakoa zen ere. Txostena aurkakoa izanez gero, ebazpenean eskatzailearen merezimenduei emandako puntu-kopuru osoa jaso zen.


Deialdi orokorrari dagokionez, eskabide bakoitzari ebazpen bat eman zitzaion eta horietariko bakoitzean eskatutakoa eta jakintza-arloa jaso ziren. Gainera, ebaluazioaren gaineko txostena aurkakoa izanez gero, atal bakoitzean (ikerketa, heziketa, kudeaketa, eta abar) lortu zen puntuazioari buruzko informazioa jaso zen. Halaber, eta hobekuntza moduan, hurrengo deialdietan balorazio positiboa jasotzeko zein alderdi landu behar ziren azaldu zen ebazpenetan.

Ebazpenak martxoko azken astean eta apirileko lehen astearen artean bidali ziren, jakintza-arloka bereizita.

2.5) Errekurtsoak

Berraztertze errekurtsoak aurkeztu zirenean, Uniqualeko langileek eta Ebaluazio-Batzordeak espediente osoa berrikusi zuten; eskatzailearen alegazioak aztertu eta horren gaineko txosten berria eman zuten. Batzordeak egindako txostena aztertu ostean, zuzendariak berraztertze errekurtsoa ebatzi zuen eta interesdunei ebazpenaren berri eman zitzaion, errekurtsoa jarri zenetik ahalik eta denbora laburrenean.

3. EBALUAZIO PROZESUAREN IRUDIKAPENA



4. EBALUAZIO-PROZESUAREN EGUTEGIA

Ondoren, ebaluazio-prozesuaren egutegia ematen da: deialdia egin zenetik prozesua amaitu artekoa.

8. taula. Ebaluazio-prozesuaren egutegia.

ERAKUNDEA	JARDUERAK	DATAK
Irakasleak eta ikertzaileak	-Eskabideak egin eta Uniqualera bidali	Deialdi zehatza: 2008-09-15etik 2008-10-15era
Irakasleak eta ikertzaileak	-Eskabideak egin eta Uniqualera bidali	Deialdi orokorra: 2008-09-10etik 2008-10-10era
Irakasleak eta ikertzaileak	-Berariazko txostenaren eskabidea (automatikoki)	2008ko urria-azaroa
UNIQUAL	- Deialdi bakoitzaren legezko betekizunak egiaztatu	2009ko urtarrila-otsaila
	- Itxita ez dauden eskabideak begiratu	
	- Aurkeztutako dokumentazio guztia egiaztatu	Deialdi osoan zehar
	- Dokumentazioan aurkeztu ez den justifikazioa eskatu	
	- Ebazpenak egin eta bidali	2009ko martxoa-apirila
	- Errekurtsoak jaso	2009ko apirila-maiatza
	- Errekurtsoak ebatzi eta ebazpen horiek bidali	2009ko ekaina

5. EBALUAZIO-PROZESUAREN EMAITZAK

Automatikoki

Euskal Unibertsitate-sistemaren 3/2004 Legeko 2. xedapen iragankorrean jasotako bi kasuetako edozeinetan, guztira 93 pertsonak lortu zuten berariazko txostena lankide iraunkorraren kasuan eta 89 pertsonak irakasle agregatuaren kasuan.

9. taula. Berariazko txosten automatikoaren emaitzak.

Ebazpenak	Lankide iraunkorra	Agregatua
Gizonak	60	53
Emakumeak	33	36
GUZTIRA	93	89

Deialdi zehatza

Deialdi zehatzean guztira 161 eskabide aurkeztu ziren; horietako 137k (% 85) ebaluazio positiboa izan zuten, beheko taulan ikusten den bezala. Lankide iraunkorraren kasuan, eskabideen % 89 k aldeko berariazko txostena jaso zuten; agregatuen kasuan, aldiz, eskabideen % 76k izan zituen aldeko emaitzak.

10. taula. Deialdi zehatzean egindako ebaluazioaren emaitzak, generoaren arabera.

	LANKIDE IRAUNKORRA			AGREGATUA			ESKABIDEAK, GUZTIRA
	G	E	GUZTIRA	G	E	GUZTIRA	
ALD.	39	61	100 (% 89)	24	13	37 (% 76)	137 (% 85)
AURKA.	7	5	12 (% 11)	9	3	12 (% 24)	24 (% 15)
GUZTIRA	112			49			161

G: Gizonak

E: Emakumeak

Hurrengo taulan, emaitzak irudiaren eta jakintza-arloaren arabera bereizi dira.

11. taula. Deialdi zehatzeko emaitzak, jakintza-arloaren arabera.

	ALDEKOA		AURKAKOA	
	LANKIDE IRAUNKORRA	AGREGATUA	LANKIDE IRAUNKORRA	AGREGATUA
ZE*	7 (% 100)	8 (% 89)	0 (% 0)	1 (% 11)
MZ	5 (% 100)	5 (% 71)	0 (% 0)	2 (% 29)
GZ	62 (% 90)	16 (% 67)	8 (% 10)	8 (% 32)
IT	15 (% 94)	1 (% 50)	1 (% 6)	1 (% 50)
H	11 (% 80)	7 (% 100)	3 (% 20)	0 (% 0)

* ZE: Zientzia Esperimentalak; MZ: Medikuntza eta Osasun Zientziak; GZ: Gizarte, Lege eta Ekonomia Zientziak; IT: Irakaskuntza Teknikoak eta H: Giza Zientziak.


Lankide iraunkorraren kasuan lortutako aldeko emaitzak oso positiboak izan ziren: % 86-100 artekoak. Agregatuaren kasuan ere aldeko emaitzak azpimarratzekoak izan ziren, nahiz eta ehuneko txikiagoak izan zituzten.

Deialdi orokorra

Deialdi orokorrean 901 eskabide aurkeztu ziren eta horietatik 810 ebaluatu ziren. Eskabideak jakintza-arlo nagusien arabera banatu ziren, beheko taulan eta irudian ikusten den bezala.

12. taula. Deialdi orokorrean ebaluatutako eskabideen banaketa, jakintza-arloaren arabera.

Ebazpenak, guztira	Irakaskuntza Teknikoak	Zientzia Esperimentalak	Medikuntza Zientziak	Gizarte, Lege eta Ekonomia Zientziak	Giza Zientziak
810	199	125	115	291	80





2. irudia. Ebaluatutako eskabideen banaketa, jakintza-arloaren arabera.

Ehunekorik handiena Gizarte Zientzietan (% 36) izan zen, gero Irakaskuntza Teknikoetan (% 25); Giza Zientzien arloan (% 10) izan zen eskabide gutxien.

Eskabide guztien artean % 60k balorazio ona izan zuen. Gizarte Zientzien arloan izan zen aldeko txosten gehien (% 78) eta Irakaskuntza Teknikoetan gutxien (% 34). Emaitza horiek “Kontratazioari begira irakasleak ebaluatzeko programa” abian jarri zenetik ANECAk lortu dituenekin alderatuz gero, oro har lortutako balorazio positiboen ehunekoak antzekoak izan ziren. ANECAk deialdi ugari egin ditu (lehenengoa 2002ko azarotik 2005eko ekainera, bigarrena 2005eko ekainetik 2006ko maiatzera, eta gero urtero) eta emaitza orokorrak 2008ko aldeko % 59en eta 2006ko % 69en artean ibili ziren (ANECA, 2005-2009 “Kontratazioari begira irakasleak ebaluatzeko programaren gaineko txostenak (IEP)”).



Irakasle motaren eta jakintza-arloaren araberako emaitzak beheko irudietan laburbiltzen dira; horietan, gainera, generoak bereizi dira. Hain zuzen, emakumeek aurkeztutako eskabideen % 52k aldeko emaitza orokorra izan zuten

eta gizonen kasuan % 48ko ehunekoa lortu zen. Hau da, emaitzak antzekoak izan ziren.




3. irudia. a) Aldeko txostenak, jakintza-arloaren arabera eta b) aldeko txostenak, ebaluatu diren irakasleen arabera. Bi kasuotan, gizonak eta emakumeak bereizi dira.

Irakasleak baloratzean, unibertsitate pribatuko irakasle-doktoreek lortu zuten aldeko txosten gehien (% 75) eta irakasle agregatuek gutxien (% 45).



4. irudia. Aldeko emaitza orokorrak: a) jakintza-arloaren arabera eta b) irakasle motaren arabera.




5. irudia. Aldeko emaitzen banaketa, jakintza-arlo bakoitzeko irakasle kopuruaren arabera.

Batzordeen emaitzak

Irakaskuntza Teknikoen Batzordea

13. taula. Irakaskuntza teknikoek jakintza-arloan egindako ebaluazioen emaitzak, irakasleen arabera.

ITen ebazpenak	Atxikia	Agregatua	Elkartua	Lankidea	Unibertsitate pribatuko doktorea	Irakasle osoa
Aurkakoa	8	46	15	45	13	5
Aldekoa	3	8	25	15	15	1




6. irudia. Irakaskuntza teknikoek jakintza-arloan egindako ebaluazioen emaitzak, irakasleen arabera.

Zientzia Esperimentalak

14. taula. Zientzia esperimentalen jakintza-arloan egindako ebaluazioen emaitzak, irakasleen arabera.

ZEn ebazpenak	Atxikia	Agregatua	Elkartua	Lankidea	Unibertsitate pribatuko doktorea	Irakasle osoa
Aurkakoa	7	32	8	5	10	2
Aldekoa	8	16	3	21	11	2




7. irudia. Zientzia esperimentalen jakintza-arloan egindako ebaluazioen emaitzak, irakasleen arabera.

Medikuntza Zientziak

15. taula. Medikuntza zientzien jakintza-arloan egindako ebaluazioen emaitzak, irakasleen arabera.

MZen emaitzak	Atxikia	Agregatua	Elkartua	Lankidea	Unibertsitate pribatuko doktorea	Irakasle osoa
Aurkakoa	0	24	5	1	2	2
Aldekoa	10	14	26	26	3	2




8. irudia. Medikuntza zientzien jakintza-arloan egindako ebaluazioen emaitzak, irakasleen arabera.

Giza Zientziak

16. taula. Giza Zientzien jakintza-arloan egindako ebaluazioen emaitzak, irakasleen arabera.

Hen ebazpenak	Atxikia	Agregatua	Elkartua	Lankidea	Unibertsitate pribatuko doktorea	Irakasle osoa
Aurkakoa	1	13	3	2	7	0
Aldekoa	5	14	0	13	20	2




9. irudia. Giza Zientzien jakintza-arloan egindako ebaluazioen emaitzak, irakasleen arabera.

Gizarte zientziak

17. taula. Gizarte zientzien jakintza-arloan egindako ebaluazioen emaitzak, irakasleen arabera.

GZn ebazpenak	Atxikia	Agregatua	Elkartua	Lankidea	Unibertsitate pribatuko doktorea	Irakasle osoa
Aurkakoa	4	26	7	15	12	0
Aldekoa	5	62	29	44	84	3

Irakasleak eta ikertzaileak ebaluatu eta egiaztatzeko memoria. 2008ko deialdia.




10. irudia. Gizarte zientzien jakintza-arloan egindako ebaluazioen emaitzak, irakasleen arabera.

Irakasle mota bereizita:

18. taula. Ebaluazioen emaitzak irakasle motaren arabera.


Ebazpenak GUZTIRA	Atxikia	Agregatua	Elkartua	Lankidea	Unibertsitate pribatuko doktorea	Irakasle osoa
Aurkakoa	20	141	38	68	44	9
Aldekoa	31	114	83	119	133	10



11. irudia. Ebaluazioen emaitzak irakasle motaren arabera.


Batzordeak bereizita:

Aldekoak



12. irudia. Ebaluazioen aldeko emaitzak jakintza-arloaren arabera.

Aurkakoak



13. irudia. Ebaluazioen aurkako emaitzak jakintza-arloaren arabera.

Errekurtsoak

Deialdi zehatzean guztira 13 errekurtsu aurkeztu ziren, baina horietariko 1 ez zen onartu lege ezarritako betekizunak betetzen ez zituelako.

19. taula. Deialdi zehatzean onartutako errekurtsuak, jakintza-arloaren arabera.

Jakintza-arloak	Errekurtsu kp.
Zientzia Esperimentalak	0
Medikuntza eta Osasun Zientziak	0
Irakaskuntza Teknikoak	1
Giza Zientziak	1
Gizarte, Lege eta Ekonomia Zientziak	10

Zientzia Esperimentalen eta Medikuntza eta Osasun Zientzien jakintza-arloetan ez zen errekurtsorik aurkeztu.

Izapidetzeko onartu ziren errekurtsuen artean soilik bat onartu zen: Gizarte Zientzien jakintza-arloko irakasle lankide iraunkorrarena. Gainerako batzordeetan aurkeztutako errekurtsuak, irakasle agregatuaren eta lankide iraunkorraren kasuan, ez ziren onartu.


Deialdi orokorra

Deialdi orokorrean berraztertzeko 103 errekurtsu jarri ziren; horietako 3 ez ziren onartu epez kanpo jaso zirelako. Errekurtsu horiek guztira ebaluatu ziren eskabideen % 13 izan ziren eta ebaluazio negatiboen % 32k, hau da, ebaluazio negatiboa izan zutenen heren batek, gutxi gorabehera, errekurtsua jarri zuen.

20. taula. Deialdi orokorrean onartutako errekurtsuak, jakintza-arloaren arabera.

Jakintza-arloak	Onartutako errekurtsu kp.
Zientzia Esperimentalak	19
Medikuntza eta Osasun Zientziak	4
Irakaskuntza Teknikoak	54
Giza Zientziak	8
Gizarte, Lege eta Ekonomia Zientziak	15
<i>Guztira</i>	<i>100</i>

Beheko irudian, aurkeztutako errekurtsuak jakintza-arloka banatu dira. Irakaskuntza Teknikoen arloan aurkeztu zen errekurtsu gehien.




14. irudia. Aurkeztutako errekurtsuen banaketa, jakintza-arloaren arabera.

Irakasle mota kontuan hartuta egindako banaketan, irakasle agregatuak izan zuen errekurtsu gehien.

21. taula. Deialdi orokorrean onartutako errekurtsuak, jakintza-arloaren eta irakasle motaren arabera.

	Atxikia	Agregatua	Elkartua	Lankidea	Unib. prib. Doktorea	Irakasle osoa	
ZE	2	10	1	2	3	1	
MZ		3				1	
GZ	1	7		2	5		
IT	5	33	1	11	1	3	
H		7			1		
GUZTIRA	8	60	2	15	10	5	100




15. irudia. Deialdi orokorrean onartutako errekurtsuak, jakintza-arloaren eta irakasle motaren arabera.

Aurkeztu ziren errekurtsuen emaitzak beheko tauletan eta irudietan azaltzen dira. Ebaluatu ziren errekurtsu guztien artean 19 (% 19) positiboak izan ziren, hau da, gutxi gorabehera 5etik 1.

22. taula. Errekurtsoei emandako erantzuna, jakintza-arloaren eta irakasle motaren arabera.

	Onartua					Ez onartua					
	Atxikia	Agregatua	Lankidea	Irakasle osoa	Unib. prib. doktorea	Atxikia	Elkartua	Agregatua	Lankidea	Irakasle osoa	Unib. prib. doktorea
ZE		1	2			1	1	10		1	3
MZ				1				3			
GZ	1	1			2			6	2		3
IT	1	8	3			4	1	25	8	3	1
H		2						5			1


Irakasleak eta ikertzaileak ebaluatu eta egiaztatzeko memoria. 2008ko deialdia.





16. irudia. Errekurtsoei emandako erantzuna, jakintza-arloka banatuta.

23. taula. Errekurtsoei emandako erantzuna irakasle motaren arabera.

Errekurtsoak	Agregatua	Unibertsitate pribatuko doktorea	Atxikia	Elkartua	Lankidea	Irakasle osoa
Onartuak	10	2	2	0	4	1
Ez onartuak	51	8	5	2	11	4



17. irudia. Errekurtsoak generoaren eta irakasle motaren arabera.



18. irudia. Errekurtsoei emandako erantzuna genero ikuspegia aintzat hartuta: a) Emakumeek aurkeztutako errekurtsuak, b) Gizonek aurkeztutako errekurtsuak.

6. HOBETZEKO PROPOSAMENAK

Ebaluazio-prozesuan ikusi da aurkeztutako eskabide batzuek formazko akatsak izan dituztela, oker aurkeztu delako dokumentazioa. Arazo hori konpontze aldera laguntza-gida bat argitaratuko da. Horrela, eskatzaileek eskabidea nola bete jakingo dute, zein datu eman behar dituzten eta merezimenduak frogatzeko zein agiri aurkeztu behar duten jakingo dute.

Agentziaren deialdiak berrikusteko eta batzordeek duten gardentasun eta mendekotasun-ezaren irudia areagotzeko asmoz, euskal unibertsitate-sistemako ebaluatzaile kopurua Agentziaren Estatutuetan ezarritako gutxieneko kopurura murriztuko da, kideak berri behar direnean.

Ebaluaziorako erabili den protokoloan gabeziak antzeman dira, irakasle elkartuak egiaztatzean. Horrenbestez, hurrengo deialdietan kategoria hori egiaztatzeko protokolo zehatza ezarriko da. Urtean zehar eskabidea egiteko erraztasun gehiago emango da.

7. I. ERANSKINA

UNIQUAL EUSKAL
UNIBERTSITATE SISTEMAREN
KALITATEA EBALUATU ETA
EGIAZTATZEKO AGENTZIAREN
EBALUATZAILEEN JOKABIDE
KODEA

CÓDIGO DE CONDUCTA DE
LOS/AS EVALUADORES/AS DE
UNIQUAL EUSKAL
UNIBERTSITATE SISTEMAREN
KALITATEA EBALUATU ETA
EGIAZTATZEKO AGENTZIA -
AGENCIA DE EVALUACIÓN DE
LA CALIDAD Y ACREDITACIÓN
DEL SISTEMA UNIVERSITARIO
VASCO

1. Uniquál Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Agentziaren (aurrerantzean Uniquál) ebaluatzaileen jardura honako hau da: aurkezten dizkieten proposamenen eta proiektuen ebaluazio konfidentzial zuzen eta bidezkoa egitea. Horretarako, Kode honetako edo ezar daitezkeen deialdietarako edo programetarako egindako berariazko dokumentu ororen printzipioak eta arauak hartu beharko dituzte kontuan.

1. La actividad de un/a evaluador/a de Uniquál Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Agentzia - Agencia de Evaluación de la Calidad y Acreditación del Sistema Universitario Vasco (Uniquál en adelante), consiste en la evaluación confidencial justa y equitativa de las propuestas y proyectos que se le presenten. Para ello deberá ajustarse a los principios e instrucciones de este Código o de cualquier otro

- Aztertzaileek ahalik eta zorroztasun profesional handienarekin beteko dute dagokien lana kalitate hobereneko balioespenak emateko Uniquali.
2. Ebaluatzaileek modu pertsonalean lan egingo dute, inoiz ez beste erakunde baten ordezkartzan.
3. Jokabide Kode honetaz gain, ebaluatzaileek interesen gatazkaren eta konfidentzialtasunaren deklarazio bat sinatu beharko dute lanean hasi baino lehen. Deklarazio hori nahitaez sinatu beharko dute Uniqualen ebaluatzaile gisa jardun ahal izateko.
4. Jokabide Kode hau sinatzen dutenean, ebaluatzaileek konpromisoa hartzen dute
- documento específico para las distintas convocatorias o programas que se puedan emitir. Los/as evaluadores/as harán su trabajo con el mayor rigor profesional a fin de suministrar a Uniquali valoraciones de la mayor calidad.
2. Los/as evaluadores/as trabajarán a título personal y nunca en representación de otra organización.
3. Junto con el presente Código de Conducta los/as evaluadores/as deberán firmar una declaración de conflicto de intereses y confidencialidad antes de iniciar sus trabajos. La firma de esta declaración es condición necesaria para poder actuar como evaluador/a de Uniquali.
4. Al firmar el Código de Conducta, los/as evaluadores/as se comprometen a mantener una

ebaluatzeko jardueran konfidentziasun eta inpartziasun zorrotzari eusteko. Ebaluatzailearen batek zuzeneko harremana badu ebaluatu behar den eskaera batekin eta egoera horrek ebaluatzailearen inpartziasuna arriskuan jar balezake edo hura mugatu, gertakari horren berri izan bezain laster jakinarazi beharko dio Uniqualen zuzendariari. Bestalde, Uniqualek bermatzen du ebaluatzailearen inpartziasuna arriskuan jartzen duen harremanen baten berri izan bezain laster, ebaluatzaileak ez duela parte hartuko proposamen horren edo proposamen horrekin lehian egon litekeen beste proposamen batzuen ebaluazioan.

5. Ebaluatzaileek konpromisoa hartzen dute eskaerak beste pertsona batzuei ez esateko - eskaeren ebaluazioan zuzenean sartuta ez dauden ebaluatzaileak

estricta confidencialidad e imparcialidad en su actividad evaluadora. Si un/a evaluador/a tuviera una relación directa con alguna de las solicitudes objeto de evaluación que pudiera poner en peligro o limitar su imparcialidad, estará obligado/a a declarar tales hechos a la Directora de Uniqua tan pronto como fuera consciente de ello. Uniqua garantiza, por su parte, que desde el momento que tenga noticias de alguna relación que pueda amenazar su imparcialidad, el/la evaluador/a no participará en la evaluación de dicha propuesta o de otras que pudieran competir con aquella.

5. Los/as evaluadores/as se comprometen a no comentar ninguna de las solicitudes con otros/as, incluidos/as otras/as evaluadores/as o miembros de

- edo Uniqualeko kideak barne-, dagokien batzordeetan egingo diren eztabaida formaletan izan ezik.
6. Ebaluatzaileak ez dira harremanetan jarriko eskaeren sinatzaileekin, ebaluatzaileen eta proposamengileen arteko entzunaldietan edo elkarrizketetan izan ezik, betiere entzunaldi eta elkarrizketa horiek ebaluatzeko batzordeen jardueretan bilduta badaude. Eskaerak ezin izango dira zuzendu ebaluazio-prozesuak irauten duen bitartean. Eskaeren baten inguruan egiten diren gomendioei dagokienez, ebaluatzaileek ezin izango dizkiete jakinarazi proposamengileei edo beste edozein pertsonari.
7. Postaz edo bitarteko elektronikoen bidez bidali behar
- Uniqua que no estén directamente implicados/as en la evaluación de las solicitudes, excepto durante las discusiones formales en el seno de las comisiones correspondientes.
6. Los/as evaluadores/as no se comunicarán con los/as firmantes de las solicitudes, excepto en el caso de audiencias o entrevistas entre los/as evaluadores/as y los/as proponentes, cuando éstas estén enmarcadas dentro de las actividades de las correspondientes comisiones evaluadoras. Ninguna solicitud podrá ser corregida durante el proceso de evaluación. Las recomendaciones a la comisión sobre alguna de las solicitudes no podrán ser comunicadas por los/as evaluadores/as a los/as proponentes o a cualquier otra persona.
7. En aquellos casos en los que las solicitudes deban serles enviadas

diren eskaerei dagokienez, ebaluatzaileen erantzukizuna izango da dokumentu orori buruzko konfidentzialtasuna gordetzea, eta ebaluazioa amaitutakoan, dokumentu konfidentzial oro birrindu edo ezabatu beharko dute. Kasu horietan, ebaluatzaileek informazio osagarria (esate baterako, Interneten, datu-base espezializatuen eta abarren bitartez) jaso ahal izango dute proposamenei buruzko azterketa osatzeko, betiere informazio hori eskuratzean arestian adierazitako konfidentzialtasunaren eta inpartzialtasunaren baldintzak errespetatzen badira. Ebaluatzaileek ezin izango diete erakutsi hirugarrenei (esate baterako, kideei, ikasleei eta antzekoei) eskaeren edukia edo proposamengileei buruzko informazioa, Uniqualen esanbidezko baimenik gabe. Ebaluatzaileek erabat debekatuta daukate proposamengileekin

por correo o electrónicamente, los/as evaluadores/as serán personalmente responsables de mantener la confidencialidad sobre cualquier documento, y deberán destruir o borrar cualquier documento confidencial una vez terminada la evaluación. En estos casos, los/as evaluadores/as podrán recabar información adicional (e.g. a través de Internet, bases de datos especializadas, etc.) para completar su examen de las propuestas, siempre y cuando la obtención de tal información respete los requerimientos de confidencialidad e imparcialidad antes expuestos. Los/as evaluadores/as no podrán mostrar el contenido de las solicitudes o información sobre los/as proponentes a terceras partes (e.g. colegas, estudiantes, etc.) sin la autorización expresa de Uniquale. Está terminantemente prohibido a los/as evaluadores/as entrar en contacto con los/as proponentes.

harremanetan jartzea.

8. Ebaluazioak Uniqualen bulego batean edo eraikin batean egiten direnean, ebaluatzaileek ezin dute atera eraikinetik eskaeren zatirik, kopiarik edo eskaeren ebaluazioarekin zerikusia duen oharririk, ez paperean dagoena, ez formatu elektronikoa dagoena. Ebaluatzaileek informazio osagarria jaso ahal izango dute (esate baterako, Interneten, datu-base espezializatuen, eta abarren bitartez) eskaerei buruzko azterketa osatzeko, baina ezin izango dira harremanetan jarri hirugarrenekin Uniqualen esanbidezko baimenik gabe.
8. Cuando las evaluaciones se realicen en una oficina o edificio de Uniqua, los/as evaluadores/as no están autorizados/as a sacar del edificio cualquier parte de las solicitudes, copias o notas relacionadas con la evaluación de las solicitudes, ya sea en papel o en formato electrónico. Los/as evaluadores/as tendrán la posibilidad de recabar información adicional (e.g. a través de Internet, bases de datos especializadas, etc.) para completar su examen de las solicitudes, pero en ningún caso podrán contactar con terceras partes sin el consentimiento expreso de Uniqua.
9. Ebaluatzaileek konpromisoa hartu dute uneoro zorrotz betetzeko ebaluazio-prozesuaren eta horren emaitzen konfidentziasuna bermatzera bideratuta dagoen Uniqualen
9. Los/as evaluadores/as se comprometen a cumplir rigurosamente en todo momento cualquier norma de Uniqua dirigida a asegurar la confidencialidad del proceso de

arau oro. Arau horiek betetzen ez badira, Uniqualeko ebaluazio-prozesuetatik berehala eta etorkizunari begira kaleratzea eragin bidezake horrek, alde batera utzi gabe aplikatu daitezkeen arautegien ondoriozko zigorrak.

evaluación y sus resultados. El incumplimiento de estas reglas podría ocasionar la exclusión inmediata y futura de los procesos de evaluación de Uniqua, sin perjuicio de las penalizaciones que se puedan derivar de otras regulaciones aplicables.

_____, 2008ko
= _____aren ____ (a).

En _____ a
de _____ de 2008.

Stua.:

Fdo.

8. II. ERANSKINA

INTERESEN GATAZKAREN ETA KONFIDENTZIALTASUNAREN DEKLARAZIOA

Behean sinatu duenak adierazten du irakurri eta ulertu duela Uniqua Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Agentziaren (aurrerantzean Uniqua) Ebaluatzaileentzako Jokabide Kodea, eta horren ondorioz, honako hau adierazten du (marka bat jarri dagokion tokian):

Ondoren azalduko diren proposamenen ebaluazioan parte hartzen badut, intereseko gatazkak sor litezke:

DECLARACIÓN DE CONFLICTO DE INTERESES Y DE CONFIDENCIALIDAD

El/La abajo firmante declara que ha leído y entendido el Código de Conducta para Evaluadores/as de Uniqua Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Agentzia - Agencia Vasca de Evaluación de la Calidad y Acreditación del Sistema Universitario Vasco (Uniqua en adelante) y consiguientemente declara (márquese lo que proceda):

Que mi participación en la evaluación de las siguientes propuestas podrían generar conflictos de intereses:

Horretaz gain, konpromisoa hartzen dut aztertu beharko nukeen proposamen ororen inguruan, edo ni bertaratu naizen bilera orotan eztabaidatzen den ororen inguruan sortzen den intereseko gatazkaren berri -zuzenean edo zeharka- izan bezain laster jakinarazteko Uniquial agentziarako langileei.

Era berean, adierazten dut ez dudala ezagutzera emango ebaluatu behar den proposamen ororen ebaluazio-prozesuaren edo horren emaitzen xehetasunik, Uniquialen esanbidezko eta idazki bidezko onarpenik gabe. Adierazitako ebaluazioa Uniqualeko instalazioetatik kanpo egiten bada, onartzen dut niri dagokidala dokumentazio idatziaren edo elektronikoaren konfidentzialtasuna gordetzea, eta ebaluazioa amaitutakoan dokumentazio konfidentzial guztia birrindu edo ezabatuko dudala,

Además me comprometo a informar al personal de Uniquial de manera inmediata, en el momento en que tenga conocimiento de cualquier conflicto de intereses, directo o indirecto, con cualquiera de las propuestas que tuviera que evaluar, o que se discuta en cualquier reunión en la que esté presente.

Asimismo, declaro que no revelaré ningún detalle del proceso de evaluación o de sus resultados de cualquier propuesta sometida a evaluación sin la aprobación expresa y escrita de Uniquial. En el caso de que la evaluación se realice fuera de las dependencias de Uniquial, asumo que seré personalmente responsable de mantener la confidencialidad de cualquier documentación escrita o electrónica que me sea enviada, y que tras finalizar la evaluación destruiré o borraré toda la documentación confidencial a no

salbu eta Uniqualek kontrakoa
adierazten badit.

ser que se me indique lo contrario
desde Unigual.

_____, 2009ko ____ -
_____aren

(a).

En _____ a
de _____ de 2009.

Stua.:

Fdo